

1. BALIO PROPOSAMENA.

Gure almohadak lo egiteko zailtasunak dituzten pertsonei atsedean sakonagoa eta kalitate handiagokoa lortzen laguntzen die, uhin bidezko estimulazio leunaren eta musika erlaxatzaile pertsonalizatuaren konbinazio bakarrari esker. Produktuak estresa eta antsietatea murrizten laguntzen du, gorputza eta burua modu naturalean erlaxatuz, botikarik edo soluzio inbaditzailearik gabe.

Balore kuantitatiboa honako hau da: lo hartzeko denbora murriztea, gaueko esnatze kopurua gutxitzea eta atsedean-ordu eraginkorrak handitzea. Balore kualitatiboa, berriz, erabiltzaileak lo esperientziarekiko duen pertzepzioan datza: lasaitasun sentazioa, ongizatea, segurtasuna eta ikasleek garatutako irtenbide berritzaile, irisgarri eta erabilerraza izatea.

Laburbilduz, gure balio-proposamena ez da ohiko almohada edo aplikazio bat eskaintzea, baizik eta teknologia, musika eta ergonomia produktu bakar batean integratzen dituen loaren konponbide adimenduna eskaintzea. Horrek bereizten gaitu lehiakideengandik eta horregatik aukeratzen dute bezeroek gure proposamena, beraien benetako arazoari erantzun sinple, eraginkor eta atsegina ematen diolako.